

MUko Goi Eskola Politeknikoak Erdi Tentsioko Potentzia Elektronikako bere Laborategia aurkeztu du, Estatuko ikerketan erreferente izango dena.

2009/01/23

Atzo osteguna, Erdi Tentsioko Potentzia Elektronikako Laborategia inauguratu du Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak Garaia Berrikuntza Guneke unibertsitatearen instalazioetan. Laborategiak –Estatuko bakarra– potentzia-elektronikaren esparruan burutuko diren ikerketak ebaluatzeko beharrezko azpiegitura eta ekipamendua du.

Izan ere, instalazioek potentzia handiko eta erdi tentsioko elektronikako sistema berrien inguruan sortzen diren ikerketa guztiei buruzko entseguak eta ebalazioak egiteko aukera eskainiko diete ikertzaileei. Ikerketa horiek hainbat alorretan aplikatu ahalko dira:

- Energia garbi eta eraginkorra sortzeko prozesuetan.
- Iturri berriztagarrietatik datorren energia era hobereanean eta itzalaldirik gabe integratzeko aukera eskainiko duten banaketa-sare elektriko malguetan.
- Kostek murriztuko dituzten eragingailu industrial eraginkoragoetan.
- Trakzio elektriko sistema seguru eta eraginkorretan.

Aipaturiko jarduera-alorrek potentzia-elektronikako sistemen aplikazio-esparru handiaren adibide argiak dira. Potentzia handitzea da sistema horien joera, eta erdi-tentsioan lan egitea. Garatu diren erdieroale berriek eta funtzionamendu maila horietara egokituriko topologia elektronikoen eragin dute joera hori. Horren adibide da aerosorgailu eolikoaren garapena: azken urteetan 600 kW-ko potentzia duten ekipoak izatetik 2 MW-ko potentzia duten egungoetara igaro gara, eta jada badira 4,5 MW-ko prototipoak ere (Offshore).

Instalazioak

1,3 milioi euro inbertitu dira laborategian, eta energia elektrikoaren – Mondragon Unibertsitatearen ildo estrategikoa– alorreko 30 ikertzailek osaturiko taldeak egiten du lan bertan. Gainera, instalazioen urteko aurrekontua miloi bat eta erdi eurotik gorakoa da.

Inaugurazio horrekin, unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak beste urrats bat eman du ikerketa-alorrean, Erdi Tentsioko Potentzia Elektronika sustatzeko eta hori azkarrago ezartzeko beharrezko aurrerapenak garatzeko bidean.

Inaugurazioa gaur, osteguna, izan da Mondragon Unibertsitatearen Garaia Guneke instalazioetan, hezkuntzako sailburuorde Ibone Amezaga, Industriako sailburuorde Ignacio Telletxea, berrikuntzako diputatu José Ramón Guridi eta Goi Eskola Politeknikoko zuzendari Vicente Atxa bertan zirela, baita Hezkuntza Saileko, Diputazioko eta Mondragon Korporazioko goi-karguak ere.

